

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2022ko urria

Euskal AEko landa-ostatueta sarrera eta ostatu-gauen kopuruek % 4,5 eta % 12,7 egin dute behera 2022ko urrian, hurrenez hurren

Atzerriko jatorria dutenen kopuruek, berriz, gora egin dute 2022ko urrian, % 94,9 eta % 86,2, hurrenez hurren

Euskal AEko **landa-ostatueta** sarrera eta ostatu-gau kopuruek gora egin dute, eta 14.976 eta 33.876 izan dira guztira, hurrenez hurren; alegia, urte arteko igoera sarreretan % 4,5ekoa izan da eta, ostatu-gauetan, % 12,7koa, Eustatek emandako datuen arabera. Jatorria kontuan hartuta, Estatuko jatorria izan duten sarrera eta ostatu-gauen kopuruek behera egin dute % 18,3 eta % 23,3, hurrenez hurren, eta atzerriko jatorrikoek % 94,9 eta % 86,2 egin dute gora, hurrenez hurren.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Urria 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2022/10	m/m-12 (%)	2022/10	m/m-12 (%)	2022/10	2021/10	plazen arabera		gelaka	
							2022/10	p.p. *	2022/10	p.p. *
EUSKAL AE	14.976	-4,5	33.876	-12,7	2,26	2,47	24,3	-4,1	28,4	-4,2
Estatukoak	11.258	-18,3	26.866	-23,3	2,39	2,54	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.718	94,9	7.010	86,2	1,89	1,97	-	-	-	-
Araba/Álava	2.672	-27,5	5.731	-33,3	2,14	2,33	16,7	-9,6	18,9	-10,2
Estatukoak	2.265	-35,2	5.017	-39,0	2,22	2,35	-	-	-	-
Atzeritarrak	407	113,1	714	93,0	1,75	1,94	-	-	-	-
Bizkaia	5.389	16,2	11.909	11,0	2,21	2,31	29,3	2,3	34,0	3,3
Estatukoak	3.919	-1,9	9.116	-3,4	2,33	2,36	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.470	128,3	2.793	116,7	1,90	2,00	-	-	-	-
Gipuzkoa	6.915	-6,1	16.236	-16,6	2,35	2,64	25,2	-5,1	29,5	-5,9
Estatukoak	5.074	-19,3	12.733	-26,6	2,51	2,76	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.841	71,6	3.503	66,4	1,90	1,96	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Azaroaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko urrikoak baino baxuagoak izanik ere, 2022ko urrian Euskal AEko landa-ostatueta erregistratutako sarreraren % 75,2 Estatuko jatorrikoak izan dira. Atzerriko jatorriari dagokionez, 2022ko urrian 3.718 sarrera izan dira, sarrera guztien % 24,8, eta 2021eko urrian 1.908 sarrera izan ziren, sarrera guztien % 12,2.

2022ko urrian, urte arteko aldakuntzak sarrera kopuruan ez dira homogeenak izan lurralde historikoaren arabera. Gipuzkoan, sarrera kopuruak % 6,1 egin du behera eta, Araban, % 27,5, eta, Bizkaian, berriz, % 16,2 egin du gora. Ostatu-gauen kasuan ere, Gipuzkoan beherakada izan da,

% 16,6koa, bai eta Araban ere, % 33,3koa; Bizkaian, berriz, aldakuntza positiboa izan da, % 11,0 egin baitu gora.

Establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,26 egunekoa izan da 2022ko urrian, 2021eko hil berean baino pixka bat baxuagoa, orduan 2,47 egunekoa izan baitzen.

Plazen eta gelen okupazio-mailek urte arteko beherakada izan dute: ehuneko 4,1 eta 4,2 puntu, hurrenez hurren; plazen arabera neurtuta, % 24,3, eta, gelen arabera neurtuta, % 28,4.

Apartamentu turistikoetan, atzerriko jatorriko sarrerek % 61,3 egin dute gora, eta ostatu-gauek, % 36,8

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2022ko urrian**, sarrerek eta ostatu-gauek honako balio hauek izan dituzte: 13.648 eta 52.312, hurrenez hurren. Aurreko urteko urriarekin alderatuta, sarreraren urte arteko hazkuntza % 36,3koa izan da, eta ostatu-gauena, % 24,9koa. Igoera horiek Estatuko jatorria duten pertsonen kopuruan (% 28,0 sarreretan eta % 20,0 ostatu-gauetan) eta atzerriko jatorria dutenen kopuruan (% 61,3 eta % 36,8, hurrenez hurren) izan dira.

Sarrerek, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Urria 2022

	Sarrerek		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamentuak	
	2022/10	m/m-12 (%)	2022/10	m/m-12 (%)	2022/10	2021/10	2022/10	p.p. *	2022/10	p.p. *
EUSKAL AE	13.648	36,3	52.312	24,9	3,83	4,18	37,4	2,1	68,7	1,8
Estatukoak	9.621	28,0	35.498	20,0	3,69	3,94	-	-	-	-
Atzeritarrak	4.027	61,3	16.815	36,8	4,18	4,92	-	-	-	-
Araba/Álava	1.299	26,7	8.405	4,3	6,47	7,86	25,2	-1,4	73,1	7,3
Estatukoak	1.163	20,3	6.679	6,1	5,74	6,51	-	-	-	-
Atzeritarrak	136	132,1	1.726	-2,2	12,65	30,04	-	-	-	-
Bizkaia	9.152	45,2	21.993	47,4	2,40	2,37	37,9	4,6	52,5	0,8
Estatukoak	6.365	37,5	14.292	35,1	2,25	2,29	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.787	66,4	7.701	77,4	2,76	2,59	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.197	19,1	21.914	16,0	6,85	7,04	45,2	1,7	81,5	4,4
Estatukoak	2.093	8,9	14.527	14,3	6,94	6,62	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.104	44,7	7.387	19,5	6,69	8,11	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Azaroaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Lurralde historikoei dagokienez, sarreraren eta ostatu-gauek hazkuntzaren buru Bizkaia izan da, % 45,2ko eta % 47,4ko hazkuntzak izan baititu, hurrenez hurren. Gipuzkoan, sarreraren igoera % 19,1koa izan da eta ostatu-gauena, % 16,0koa. Araban, azkenik, sarreretan % 26,7ko igoera izan da, eta ostatu-gauek, % 4,3koa.

Establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 3,83 egunekoa izan da 2022ko urrian, 2021eko urrian baino baxuagoa, orduan 4,18 egunekoa izan baitzen.

Informazio-oharrak

Landa-ostatuaren ETHIren erantzun-tasa % **94,5**ekoa izan da, eta Apartamentu Turistikoena, % **85,0**ekoa, 2022ko urrian.

Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62